

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN

# BERRI PAPERERA



AMAIA ZENTROA  
Benito Perez Galdos Z/G  
01002 Gasteiz  
Araba  
E.: araba@bertsozale.eus  
T.: 945 01 05 05  
www.bertsozale.eus/araba



## Badator BEE... eguna!

26 bertso eskola baino gehiago etorriko dira Agurainera

Izar Mendiguren

Ez, ez dira artaldeak etorriko, baina ardi galduren bat edo beste seguru baietz! Azaroaren 14an, larunbatean, ospatuko da aurtengo Bertso Eskolen Eguna (BEE) Agurainen. Sorginetxetik gertu, sorgin eta aker ugari batuko baitira suaren inguruan dantzan. Bai, suaren bueltan, herri bazkaririk ez baita faltako. Eguerdiko 12:00etan egingo dute juntadizua Aguraingo plazan, 12:15etan (denbora eta aukera galdu gabe, jakina) abiatuko baita JotaFa txarangaren erritmora bertso-poteoa. Kantuan nor arituko den? Nor ez! 26 bertso eskola baino gehiago etorriko dira Lautadara, bazkalostean Euskal Herriko Helduen Bertso Eskolen Batzordeak "Bertsotruk" dinamika aurkeztuko baitu. "Bertso zerrr!?". Bertsotruk, eta gainera musutruk!

"Eing?" Martzianoenak ere ulertzeko moduan azalduko dizuet: bertso-eskola guztiei gonbita luzatu ostean apuntatu direnen artean hironaka multzoak osatu dituzte, eta talde bakoitzak bere blokeko beste biak hartuko ditu etxean (tabernan, soziedadean edo nahi duen tokian) eta beste bi herrietako erronketara joango da.

Argituta, ezta? Argi dagoen gauza bakarra saltsarik ez dela faltako da, piperrik egin gabe "salau" eta "salada"

mordoa batuko baitira Agurainen. Bazkalostean jai iragarri dute; eta 19:30ean kontzertu ibiltaria egongo dela jakinda, seguru gauean ere nahikoa show ikusiko ditugula. Gainera, Lautadako bertso eskolako txindurriek lozorrorako txokoa gorde digute. Txartelak laister jarriko dira salgai.

Telebista auskalo etorriko den edo ez, baina kamararik ez da faltako. Ezta irribarrerik. Ezta toparik. Arabako bertsozaletasunak ez du toperik, eta beste behin ere tope gozatzera goaz. Eta zuk? Aukera galduko duzu?

Bazkarian eta lotarako izena emateko [www.bertsosarrerak.eus-en](http://www.bertsosarrerak.eus-en)

BERTSO ESKOLEN EGUNA 2015 AZAROA AGURAIN


12:00etan Juntadizua  
12:15ean Jo eta Fa txarangarekin bertso-poteoa  
14:30ean Bazkarria  
17:30ean Bazkalosteko jaiak  
Bertso trukan aurkezpena  
Bertso eskolen artea  
19:30etatik aurrera SUDURGORRIAK

lotarako tokia eskura  
2015ko azarora

## KOPLA

BEE eguna da Agurainen, ondorioetan pentsa, nor izango da hara joaten kapaz ez den ardi beltza?

Ari naizela,  
ari naizela...



Argitalpenaren  
laguntzaileak



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

[www.alava.net](http://www.alava.net)



# Kuadrilla artekoa 2016: bat da eta bizirik dago!

Hara nondik! Topaketa eta erronka

Asier Lafuente



Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai...

Hautsa zen baina forma hartu du. 2016ko Kuadrilla artekoari ekografia egin behar zaio jakiteko nolakoa den. Beraz, hau informazio pribilegiatua da; ernaldu dutenek bakarrik jakin behar dute.

Bi urtean behin antolatzen den taldekako ekimen bat da Kuadrilla artekoa; ekimen kolektiboa eta herrikoa da. Arabako bertso-eskolek sortzen duten egituraren oinarritzen dena.

Arabako bertsolariak 3-6 bertsolari osatutako taldetan parte hartzen dute; gai-jartzailea, epailea, musikariak, sukaldariak... ere taldekideak dira. Talde parte hartzaile hau, talde antolatzaile bat ere bada; bere herrian edo eskualdean topaketa antolatzeaz arduratuko da.

2016ko Arabako Kuadrilla arteko laugarren edizio honetan bat-bateko 14 taldek parte hartuko dute, 51 bertsolari eta idatzizko 10 taldek. Era berean, berrituta dator; izaera kolektibo, herrikoi, eta taldeen autogestioari eutsiko dio, eta erronka-topaketan oinarrituko da.

Arabako 6 eskualdetako taldeen arteko 6 topaketa antolatuko dira, erronka izaerarekin. Eskualde bakoitzean topaketa antolatzen duen taldea edo taldeak Arabako beste talde batzuekin erronketan arituko dira, formatu ezberdinetan (bertso-bolo, saio musikatua, koplak lehiaketa, oholtza gainekoa bertso guda, bertso-herri kirolak, bertso-tloia).

Finalean, martxoaren 12an, Argantzunen, talde guztiek erronka ezberdinetan parte hartzeko aukera izango dute. Baina, erronkaz harago, Arabako bertsolariak eta euskararen festa izango da.

## APUNTAU DATAK

### Aurkezpena

Urtarrilak 16, larunbata, Trebiñun

### 6 topaketa-erronkak

Urtarrilak 23, larunbata, Izarra  
Urtarrilak 30, larunbata, Audio  
Otsailak 13, larunbata, Araia eta Zaldondo  
Otsailak 20, larunbata, Kanpezu  
Otsailak 27, larunbata, Errekaleor (Gasteiz)  
Martxoak 5, larunbata, Oion

### Festa - finala

Martxoak 12, larunbata, Argantzun

## Iñaki, ez dago hain urrun Kamerun

Araba Bertsozale egitasmoan 14 bertso saio

Asier Lafuente

2008tik Arabako Bertsozale Elkarteak ahalegin berezia egiten du bertsolariak ezezaguna den tokietara eta pertsonengana hurbiltzeko.

ARABA BERTSOZALE egitasmoarekin bertso-saio gutxi egiten diren herrietara hurbildu gara, hala nola, Langraiz, Argote, Heredia, Ametzaga, Trebiñu, Ilarduia... Eta baita bertsolariak ezezaguna den jendearengana; ospetsuak egin ziren iaz Ruben Sanchezek eman zituen 10.299 hitzaldi horiek: "Bertsolariak zer da horiiiiiii?"

Aurreko urtean bezala, Arabako bertso-eskolen bitartez, baina bertso-saio eskaini dira Arabako 7 eskualdetan (Baaaaai, Araban 8 eskualde daude baina Gasteiz ez da sartzen egitasmo honetan; Aldundiak diruz laguntzen baitu). Guztira 14 bertso-saio.

Hona hemen, aurten egin diren edo hurrengo astetan egingo diren bertso-saioak:

Oionen abuztuaren 1ean gazteekin, Oionen urriaren 25ean, Amurrioko Gaztetxean urriaren 30a, Audioko gaztetxean azaroaren 13a, Murgiako gaztetxean azaroaren 20a, Trebiñuko Gutxisolorekin azaroaren 20a, Antezanan Añanako Euskara Elkartearekin azaroaren 21a, Asparrengo Ametzagan azaroaren 21a, Agurainen azaroaren 28a, Gaubean abenduaren 6a, Argantzunen abenduaren 18a, Elosun abenduaren 18a eta Korresen zehazteke.



# Aramaioko bertso-eskola

Bertso birusa zabaltzen jarraitzen dugu!

Berripaperak atal berri duela esanaz deitu ziguten aurreko batean kapitalekoek, eta ea parte hartu nahi ote genuen, azaltzeko nahi genuena orrialde batean, hitz egiteko gutaz, egiteko nahi genuena.... Nola esango genien ezetz?

Eta behin atal honen zergatia azalduta, bueno, formalki, Arabako bertso-eskolei presentzia eta oihartzuna emateko da, ekin diezaion ARAMAIOKO BERTSO-ESKOLA aurkezteari.

On Manuel profetak (Perea espiritu santuaren aginduz) ekin zion Aramaion bertsoaren birusa edo erlijioa (norberak nahi bezala ikusi dezala) zabaltzeari, nola ez, bere aldamenean berak baino lan gehiago egiten zuten bi emakume zituelarik. Horrenbeste lan egiten zuten bi hauek, bat Aramaio Estatu Independenteko (AEI) agintari gorenaz izendatu dutela.

Gerora batu ziren sektara, profetaren anai txikia eta haren sekittua, tartean, Euskal Herriko hamaika bertsolarik miretsi izan duten Pako aztia.

Gero Xabierko gazteluko azken ondorengoa, Mundu berriko indigena misiotara bidali dugun sorgina, abarrategitar klaneko nagusia, gasteizen exiliaturik dauden 3 mosketariak...

Poliki-poliki birusa AEI osoan zehar zabaltzen joan zen. Noizbehinka, Gasteizko Ignatius edo Zalduondoko dama bisitan etorri izan dira gurera, Asterix eta Obelixen ipuinena bezala edabe magikoren bat dugula uste izanda. Hasieran, parkeko iturriko ura zela pentsatu izan zuten eta 200 kupela ur zikin bezain txarra den horrekin bete zituzten, baina alperrik. Ostean, gure sukaldari jauna bahitzen ere ahalegindu zirenak ere agertu ziren, baina honen berrikerako gaitasun amaigabeak xahutu egin zituen. Gure birusa



arrazionaltasunetik ulergaitza da. Egun, gure erlijio partikular honek makina bat jarraitzaile ditu, eta 3 taldetan banatutako 15 profeta gai. 3 taldeok bi irakasleren eskutan daude: batetik, abarrategitar klaneko nagusia eta bestetik, Aretxabaletatik (Gipuzkoa) irakastera baino ikastera etorritako tipo bat. Ikus dezakezuen bezala terrenoak konkistatzen jarraitzen dugu.

On Manuel profeta gurtzeko azken biltzarrean, Arrasate aldeko lagunek egin ohi duten gisara, erabaki estrategiko bat hartu genuen: Aramaio Bertso-eskolak hiru hileroko gutxienez Aramaio herriari ekintza bat eskaini behar zion, eta aurrean ere horrela egingo dugu!

Udazkenean, bertso-eskolaren ikasturte

hasiera jaia probestuz, bertso saio bat antolatu genuen Julio Soto eta Unai Gaztelumendirekin (argazkian), "Gazteak Plazara" saio bat izango dugu; neguan urteroko Gabonetako bertso saioa izango dugu eta Santa eskean aterako gara; udaberrian, atzerriko inprobisatzaileak etorriko dira, EHko herri artekoan hartuko dugu parte... Baina horiek gerorako utziko ditugu.

Baina Berri Paperaren atal berri honek badu beste helburu bat ere, soka ez etetea, hartara, gure berri eman dugularik LAUTADA aldean zer berri? Bonboa jotzeaz gain bertsotan egiten duzue?

Hurrengo Berri Paperaren Lautadako bertso-eskolaren artikulua.

# AGENDA!

Azaroak <b>13</b> LAUDIO	BERTSO SAIOA	Gaztetxean, 21:30 Miren Amuriza, Unai Gaztelumendi Gai-jartzailea: Asier Rubio
Azaroak <b>14</b> AGURAIN	EHko BERTSO ESKOLEN EGUNA	12:00 Egun osoa Antolatzailea: EHBE, Lautadako Bertso-eskola
Azaroak <b>20</b> MURGIA	BERTSO AFARIA	Gaztetxean, 21:00 Aimar Karrika, Izar Mendiguren Antolatzailea: Murgiako Bertso-eskola
Azaroak <b>20</b> TREBIÑU	BERTSO AFARIA	21:30 Oihane Perea, Felipe Zelaieta Antolatzailea: Gutxisolo Euskara Elkarte
Azaroak <b>20</b> GASTEIZ	BERTSO AFARIA	Larragorri Elkarte, 21:00 Andoni Egaña, Arkaitz Estiballes Antolatzailea: Larragorri Elkarte
Azaroak <b>26</b> GASTEIZ	BERTSO SAIOA	Gaztetxean, 21:30 Manex Agirre, Irati Anda, Amets Arzallus, Oihana Bartra, Sustrai Colina, Alaia Martin Antolatzailea: Gaztetxea
Azaroak <b>27</b> ARAMAIO	BERTSO SAIOA	Sastiñan, 19:00 Maddalen Arrausi, Xabi Igoa, Iñaki Lertxundi, Jon Sanchez Gai-jartzailea: Nieves del Alamo
Azaroak <b>27</b> GASTEIZ	BERTSO AFARIA	Basajaun taberna (Arriaga auzoa), 21:00 Jagoba Apaolaza, Oihane Perea Antolatzailea: Bost Urki Auzo Elkarte
Azaroak <b>27</b> GASTEIZ	BERTSO AFARIA	Basajaun taberna (Arriaga auzoa), 21:00 Izar Mendiguren, Fredi Paia Antolatzailea: Barrundiako Udala

## ZERNAHI

### HAU EZ DA SERIOA! ;-)



Xabi Igoa

Txirrita esnatuko balitz... Makulukada galanta jasoko zuten Oier Suarez eta Maria Fuentesek.

Zalduondoko esango du gaiak zituela mugikorrean gordeta, baina denok dakigu Ameriketako egindako "laguntxoekin" ari zela whatxapeatzen! Hau Dandy baino okerragoa da!

Eta Maria... Ai Maria... ez esan sormen prozesu eraldatzaile eta berritzaile bat denik! Bertso bat-batekoa behar du, berehalakoa, bakarra... EZ ERREPIKATU BESTEEK EGINA! Errepikatzeotan alkandora errepikatu, Txirritak bezala.

Txirrita esnatuko balitz...